

GUKA

ARGIZ BETETAKO OROITZAPENAK

GUKA KIDE

al zara?

Gukakide, Gukaren bazkidetza formula da.

Komunitate zabala eraikitzen jarraitu nahi dugu, euskaraz eta herrigintza sustatuz ahal dugun neurrian. Horretarako, herritarren eta eragileen babesa eta atxikimendua behar-beharrezkoak ditugu.

egunkaria
paperean

95€
URTEAN

aldizkaria
paperean

60€
URTEAN

digitala

52€ URTEAN

Papereko eskaintzek digitala barne dute.

abantailak

- Papereko argitalpenak etxean, Gukakide digitalak izan ezik.
- Argitalpenak digitalki eskuragarri.
- Guka aplikazioan bazkideentzako txokoa.
- Zozketak eta lehiaketak.
- Ekitaldiak.
- Deskontu sarea.
- Argazkiak eta bideoak deskargatzeko aukera.



Iritzia

Jokin Beristain

Bizitzaren trena eta doluaren bidea

Askotan irudikatu izan dut bizitza tren bidaia baten moduan. Tren luze bat, bagoiz bagoi, geltokiz geltoki, paisaia eta bizipen berriak zabaltzen diren bidaia bat. Bidaia sinboliko horretan, bagoi bakoitzak gure bizitzako etapa bat irudikatzen du, bakoitza bere esperientzia, erronka eta ikasketa propioekin. Pertsona asko sartzen dira gure bihotzeko bagoian eta beste asko jaisten dira, eta inoiz ez dakigu nortzuk geldituko diren amaierara arte.

Bagoitik jaitsi den pertsona bakoitzak arrasto bat utzi du nire bihotzean. Batzuen arrastoak epelki goxatzen dit bihotza, beste batzuenak oraindik min egiten dit... baina guztiek dute beren lekua nire bihotzean.

Maite izan ditudan pertsona batzuk –edo hobeto esanda, nahiz eta gure artean ez dauden oraindik maite ditudanak– bagoitik jaistean zenbat aldiz gelditu izan naizen dagoeneko pasatu diren lehenaldiko bagoietan trabaturik... Dagoeneko jaitsi diren pertsona horiekin etorkizun bat irudikatzeari agur esan ordez, gertatu den egiarekin borrokan. Etapa bat

amaitu dela onartu ordez, patuari pultsu bat eutsi eta haren gainetik jarri nahian.

Dolu prozesuen garairik gordinenetan, nire bakardadean edo nire isiltasunean egotea gehiegizkoa izan zaidan garai horietan, zein beharrezkoak izan zaren nire minarekin nengoen bitartean hor bertan nire ondoan bidelagun izan zaren pertsonak. Zuekin egote hutsak, barne egonezin jasangaitza edabe miragarri batek ukitua izan balitz bezalaxe, eramangarri bihurtu du.

Eta urtaro berri bat jaiotzen den moduan, isiltasunean egotea mingarri izatetik goxoa eta beharrezkoa izatera pasatzen denean, barne jakinduriaren ahots leuna entzuten hasten da. Ez du hitz egiten, baina

badakit zer esaten didan. Isiltasunaren magaletik jaiotzen den jakinduria horrek gidatzen nau ulertzera zein diren prozesuaren hurrengo pausoak, zer den benetan behar dudana, zeintzuk diren pauso bakoitzaren erritmoak eta minak dakarren transformazio ahalmena, bizi esperientzia honetatik nire bertsio sakonago, helduago eta kontzienteago batera eraldaturik ateratzeko. Hau ote dolu prozesua bizitzaren oparia?


Doluak irakasten digu bizitzaren trenean ez garela gidari, baizik eta bidaiari. Eta bidaia honetan, bakoitzak bere lekua du: joandakoek, gelditu garenok eta oraindik igoko diren guztiek. Eta, agian, doluaren azken geltokia hori da: onartzea maitasunak ez duela heriotzaren mugarik.

Nire bihotzeko bagoitik jaitsi diren pertsona guztiak dira garrantzitsuak, baina honako iritzi artikulua hau idaztean atera zaizkidan malkoek zuen usaina dute, Garbiñe eta ama. Izan ere, zuek joan zarete, baina tren horrek zuen usaina darara oraindik. Eskerrik asko nirekin elkarbanatu duzen guztiagatik, opari bat bezala hartu dut zuek nire bizitzako bagoietan topatu izana.

Doluak irakasten digu bizitzaren trenean ez garela gidari, bidaiari baizik

Azken geltokia hori da: onartzea maitasunak ez duela heriotzaren mugarik

HILBERRIAK URTEURRENAK eta **ESKERTZAK** **GUKA** hedabideetan



ESKELA JARTZEKO:

zumaia@ukt.eus
orio@ukt.eus
zarautz@ukt.eus
azpeitia@ukt.eus
azkoitia@ukt.eus
urolakosta@ukt.eus

943-81 38 41

"Momentu zailetan laguntzea harro egoteko modukoa da niretzat"

Ibai Esoain Beilatokiko langilea

Beilatokiko langilea da Ibai Esoain. Duela urtebetera arte, ordea, Orioko lurperatzaile lanarekin uztartzen zuen beilatokiko lana. Berea lan "duina" dela adierazi du, momentu "gogorretan" egiten baitu lan.



-EKAITZ ETXABE

Nolatan hasi zinen lurperatzailer lanetan?

Garai batean herri lanetan aritzen nintzen, beste bi lagunekin batera: Joxe Mari Illarramendirekin eta Alberto Sukiarekin. Lorezaintza lanak, igeltseritza lanak, herriko konponketak eta halakoak egiten genituen. Orduan, hilerriko lanez ere herri langileak arduratzen ginen. Alberto Orioko hilerriko lurperatzailea zen garai hartan, eta egun batean hileta bazegoen, hari laguntzera joan ohi ginen Joxe Mari eta biok. Panteoian lekuri bazegoen begiratzear eta zerbait txukundu behar bazen txukuntzeaz arduratzen ginen egun horietan.

Beraz, lehen urratsak Alberto Sukiaren atzetik egin zenituen.

Bai, hala da. Egia esan, oso gustura ibiltzen nintzen haren ondoan, izan ere, bere semea eta biok lagun minak gara, eta bera ere oso langilea eta oso jario onekoa zen. Haren ondoan beti gustura egoten nintzen, eta haren babesean hasi nintzen hilerriko lanak egiten ere.

Nolatan iritsi zinen lurperatzailea izatera?

Handik denbora batera herri lanak utzi nituen, ikasten hasi bainintzen. Urte batzuk lanean eman ondoren, langabezian geratu nintzen. Garai batean hilerriko lanez herri langileak arduratzen baginen ere, gaur egun lehiaketa bidez esleitzen da lan hori. Lau urtetik behin lehiaketa antolatzen dute, eta edozein enpresak dauka hara aurkezteko aukera. Langabezian geratu ondoren, enpresa horietako batean hasi nintzen

lanean: Memoran. Bertan, beilatokiko lanak egiten nituen. Memoran lan egiten nuela, gerenteari esan Orioko hilerriko lanak egiteko moduan nintzela, eta lehiaketara aurkeztu ginen. Orduan, geuk eskuratu genuen lan hori. Oriokoaz gain, Gipuzkoako beste hainbat hilerri kudeatzen genituen: Urnietakoa, Ibarakoa, Goierriko batzuk ere bai... Duela



"Norbait hiltzean, haren etxera joan, jaso, txukundu, garbitu, kaxan sartu... egiten dut"

"Santu Guztien Egunean eta antzeko datetan lan gehiago izan ohi dugu"

"Hildakoak zaintzerakoan eta prestatzerakoan, jauzi kualitatiboa eman da"

hamar bat urte izan zen hori. Gaur egun, ordea, beilatokiko lanetan aritzen naiz soilik, duela urtebete utzi bainion lurperatzaile lanari.

Titulurik edo antzekorik behar al da lurperatzaile lana egiteko?

Ez da titulurik behar izaten. Edo, nik, behintzat, ez daukat aparteko titulurik. Tarteka armiarma tartean ibiltzea tokatzen da, eta horrek atzera

eginarazten ez badizu, askoz hobeto [barrez].

Lan horrek bizitza ikusteko modua aldarazi al zizun?

Ez nuke esango horrelako aldaketarik eragin didanik. Tarteka bai pentsatzen dudala oraina bizi behar dugula. Lur emateko garaian edo halako lanetan ari zarenean jabetzen zara horretaz. Horrelako gogoeta batzuk egin ohi ditut, baina ez nuke esango bizitza ikusteko modua aldatu zaidanik.

Nolakoa izaten da zure lane-gun bat?

Gaur egun, Memora beilatokian lan egiten dut, eta denetarik egin ohi dugu. Norbait hil dela jakiten dugunean, haren etxera joan, jaso, gorpua ekarri, txukundu, garbitu, bizarra moztu, jantzi, makillatu, prestatu, kaxan sartu... Horrelako lanak egin ohi ditut nik. Batzuetan, erraustu ere egiten ditut. Hilerriko lanak, berriz, beste batzuk izan ohi dira. Norbaiti lur eman behar zaionean, lehenago etorri behar izaten da lekuri badagoen ikustera. Lekuri ez badago, zerbait aldatu behar izaten da, eta, ondoren, dena txukundu. Horrez gain, Santu Guztien Egunean eta antzeko datetan lan gehiago izan ohi da, jendeak dena txukun egotea nahi izaten baitu.

Zuretzat berezia al da Santu Guztien Eguna?

Pertsonalki, ez da oso egun berezia izaten, baina nabaritzen dut egun hori hurbiltzen ari den heinean jendea urduritzen hasten dela. Gauzak horrela, gaur egun ere Orioko hilerriara joan ohi naiz laguntzera. Han bakoitzak bere panteoia du, eta Santu guztien Egunerako

hura txukun edukitzea gustatzen zaio jendeari; horregatik, lan karga handiagoa izan ohi da egun horren bueltan. Esaterako, urte guztian hilerriara joaten ez diren herritarrak joan daitezke egun horretan, eta ikusmiran ibiltzen dira hilerri guztian zehar. Beraz, herritar horiek ere iritzi ona izan dezaten, hilerria txukun edukitzea komeni da. Kezka edo ardura hori izan ohi dut, baina niretzat, behintzat, ez da egun erabat berezia.

Zer da zure lanaz gehien gustatzen zaizuna?

Lan duin bat dela. Norbaitek jaso, prestatu eta lurperatu behar ditu hildakoak, eta haiekin lanean ari zaren momentutik, oso lan duina da. Nire ustez, oso momentu gogorak bizi izaten ditugulako da lan duina. Emozioak oso presente egoten diren momentuak izan ohi dira, eta batzuetan oso esker onekoa da guk egiten dugun lana. Askotan aurkitzen dituzu hildako pertsonaren familiakoak edo etxeakoak noraezean. Haiekin egoteak eta haiei laguntzeak badu bere duintasuna. Hildako batzuen egoera dela eta, ez da beti lan samurra izaten, eta momentu gogorak izaten dira guztientzat, baita guretzat ere. Momentu zailetan ahal den moduan laguntzea harro egoteko modukoa da niretzat.

Eta gutxien?

Ezin dituzula zure egunak planifikatu. Alegia, ez dakizu zenbat lan izango duzun egunean, hildako mordoa egon baitaiteke egunen batean, eta bestean, aldiz, oso gutxi. Horrez gain, espero gabeko heriotzak ere gogorak izan ohi dira. Oso go-

gorra izan ohi da horiei aurre egitea emozionalki.

Gaur egun, duela urte batzuk baino lan gehiago edo gutxiago izan ohi duzue?

Ez nuke jakingo datu zehatzak esaten, baina iruditzen zait hildakoak zaintzerakoan eta prestatzerakoan jauzi kualitatiboa eman dela. Jauzi kuantitatiboa baino gehiago, kualitatiboa izan dela esango nuke. Iruditzen zait orain hobeto prestatzen direla, hobeto txukuntzen direla eta hobeto kontserbatzen direla. Teknikak eta produktuak hobetzen doaz, eta hori nabari da. Hala ere, ezin dut hori guztia ziurtasunez esan, duela 50 urte ez bainintzen ari arlo honetan lanean. Egia da orduan gorpua etxekotu egiten zela, etxeetan edukitzen ziren hildakoak. Orain, berriz, beilatokietan egon ohi dira. Erraustu ere gero eta gehiago egiten dira. Garaiak aldatzen doaz.

Errelebo nahikoa dago lanbide honetan, ala zaila da hildakoekin jardun nahi duen jendea aurkitzea?

Bai, uste dut errelebo nahikoa dagoela. Iruditzen zait estetika mundutik datorren jendea prest dagoela beilatokietan eta halakoetan lan egiteko. Gaur egun, gainera, emakumezko dezente aritzen dira halako lekuetan. Ni hasi nintzenean, ia denok gizonezkoak ginen. Hain zuzen ere, administratzailea izan ezik, beste denok ginen gizonezkoak. Erreleboa nik uste dut badagoela, eta hilerriko lanetarako ere badaude lehiaketetara aurkeztu diren hainbat enpresa. Errelebo faltarik ez dut ikusten nik.

Santu guztien egunerako enkarguak

Egin zure lore-eskaera
697 250 292 | garden@kimubat.eus



KIMUBAT
— GARDEN



Urola Kostako oroitzapenen txoko berezienak

Gero eta gehiago dira norbait hiltzen denean hura errausteko erabakia hartzen dutenak, baina badira oraindik ere hildakoak lurperatzen dituztenak. Gehiago ala gutxiago, gure paisaiaren parte dira hilerriak, eta eskualdeko herri guztietan daude. Hori bai, oso ezberdinak dira bata bestearen artean. Hona hemen arreta pizten duten zenbait oroitzapenen txoko berezi.

Errezil, umorez

Aski kontu ezagunak dira errezildarrek euskara jatorrean hitz egiten dutela, gida-tzea asko gustatzen zaiela eta ateraldi onak dituztela. Baina umore hori bizitzatik harata-go eraman dute, eta hilerriaren sarreran ikus daitezke horren zantzuak. Izan ere, ate gainean jarrita dagoen esaldiak honako hau dio: "Laister esango dute zuretzat, orain esaten dutena neretzat: il zan". Hilerriera joatea asko kostatzen zaien horiei ere, irribarre txiki bat ateratzeko modukoa.



Aia, 360 gradukoa

Muino txiki batean kokatzen da Aiako hilerria, eta merezi du al-dapatxoa igotzea. Izan ere, hara joaten denak Aiako udalerrria, inguruko mendiak, Pagoetako parkea eta Donostiako kostaldea izango ditu begien bistan. 360 gradutako ikuspegi ederra eskaintzen du hilerri txikiak, eta hari itzulia emanez gero, pasiera boro-bila osa daiteke, paisaiatz lasaiago gozatu nahi izanez gero.



Aizarnazabalen, paretetan

Hil aurretik, ohikoa izaten da norberak non, noiz eta nola lurperatzea nahi duen ingurukoekin zehaztasunez hitz egitea, baina Aizarnazabalen ezin dute hizketaldi hori izan. Izan ere, hango hilerri txikira sartzea nahikoa da detaile txiki batekin ohartzeko: lurperatutako hilobirik ez dago. Hori bai, ikuspegi ederraz goza dezakete hara joaten direnek, inguru berde-berdean kokatzen da eta hilerria.

Zestoa, etxetik gertuena

Hilerri gehienak herriguneetatik aparte kokatu ohi dira, baina hori ez da Zestoakoaren kasua. Zestoa errepidez gurutzatzen duen edonork ikusiko ditu autotik jaitsi gabe hilerriaren zantzu diren gurutzeak. Herrigunetik gertu-gertu dago Zestoako hildakoen txokoa, etxean daudenek falta direnak bertan senti ditzaten.



Getaria, artea eta paisaia

Esan beharrik ez dago Getaria kostaldeko herrien artean politenetakoa dela, eta haren hilerriaren kokalekua ere halakoxea da, zoragarria. Benito

Lertxundik kantatuak gogoratu daitetzke hilerria bisitatzean: "Azken arnasa eman nahi nuke itsasoari begira".

Ikuspegi ederra da Getariako hile-

rriaren ezaugarri behinenetako bat, baina bada hura bisitatuz gero atentzioa pizten duen beste kontu bat ere: arteak presentzia nabarmena du han. Ainara Aspiazuren horma irudi

koloretsu bat dago hilerriaren txoko batean, Uxue Alberdiren testu honek lagunduta: "Izenik gabeko hezurak, iraganaren beroa. Hautsa konpainia isila da itsasoaren aurrean".

Casa BASUSTA

Santiago auzoa, 18
943-86 26 11

f i g



Landareak
Dekorazioa eta opariak
Hileta zerbitzua
Lore-sortak
Ezkontzak



Sartu gure **online dendara**
eta egin zure erosketak etxetik

www.floristeriabasusta.com

Etxez-etxeko zerbitzua





CARMONA

FUNERARIA EHORZTETXEA

CARMONA EHORZTETXEAK **50 URTE** BAINO GEHIAGO DARAMATZA UROLA BAILARAN MOMENTU GOGORRETAN ZERBITZUA EMATEN, GERTUKO TRATUA ETA PERTSONALIZATUA ESKAINIZ.

ETENGABEKO **24 ORDUKO ZERBITZUA DUGU**,
AZPEITIKO ETA AZKOITIKO BEILATOKIETAN.



Carmona ehorztetxea Pablo VI, 7 - AZPEITIA - Tel.: 943-15 15 14 - 943-15 09 74

Beilatokia Azpeitian Ibai-Ondo Kalea, z/g AZPEITIA - Tel.: 943-81 60 42

Beilatokia Azkoitian Juin Industrialdea z/g - AZKOITIA - Tel.: 943-85 20 70

Zerbitzu iraunkorra Tel.: 943-15 15 14 - 943-15 09 74

www.funerariacarmona.com